


NEREA LOIOLA PIKAZA

AHT

A R R I S K U H A N D I K O T R E N A



AUKERATU ZURE
ABENTURA
+
IHES-LIBURUA

ESKAPU LIBURUA

erein

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024eko azaroan

Azalaren eta liburuaren diseinua:

Iván Landa | Erein

Maketazioa:

Iván Landa | Erein

© Nerea Loiola Pikaza

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-9109-942-0

L. G.: D 939-2024

EREIN Argitaletxea.
Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300
erein@erein.eus
www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia
Zubillaga industrialdea, 9
20560 Oñati
T 943 783 309
gertugrafika@gmail.com
www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

NEREA LOIOLA PIKAZA

AHT

ARRISKU HANDIKO TRENA

AUKERATU ZURE ABENTURA
+
IHES-LIBURUA

ESKAPU LIBURUAK



erein

*Liburu bakoitza ilusioz irekitzen duenari.
Irakurtzea gustuko duela aitortzeko lotsarik ez duenari.
Leku eta jarrera inposibletan irakurtzen duenari.
Gustuko liburuak irakurtzen dituenari.
Poesia irakurtzen duenari.
Lagunekin irakurri duenaz hitz egiten duenari
Liburuekin jolas egiten duenari.
Orhi, Xuhar eta Andoniri.*

*«Ezin liteke ezinezkoa gertatua izatea; beraz,
ezinezkoak posible izan behar du, itxurak gorabehera».*

ORIENT EXPRESSEKO HILKETA, AGATHA CHRISTIE



Galtzetako poltsikoan zegoela uste zenuen, baina ez dago

Ezta jertsearen poltsikoetan ere.

Zure lagunek Hendaiako tren geltokiko segurtasun-kontrola banan-banan nola igarotzen duten ikusten duzu. Zuri, ordea, ez dizute aurrera egiten uzten: nahitaezkoa da nortasun agiria erakustea eta ez duzu zurea aurkitzen.

—Motxilan beharbada? —galdetu dizu Anek, zurekin geratu den irakasleak.

—Begiratu dut, ez dago.

Duela hamar minutu eskas izan duzu eskuetan, bidaiatxartela jaso ahal izateko; ez duzu ulertzen zertarako eskatu behar dizuten berriz ere, oraintsu erakutsi baduzu. Non demon-tre sartu duzu?



2

Irakaslea segurtasun guardiarekin ari da hizketan. Dagoeneko hiru aldiz azaldu dio zuen ikasbidaiaren hasiera dela eta Pariserako trenea galtzeko zorian zaudetela. Guardiak adeitasunez erantzun dio, badirudi pena ematen diozula; alferrik da halere, nortasun agiririk gabe ez dizu pasatzen utziko.

—Ez zitzaizun bidean ereriko? —galdetu dizu irakasleak. Betaurreko borobil erraldoiek eta bekainetarainoko kopeta-ile beltzak aurpegi erdia gordetzen dioten arren, nabaritzen diozu zurekin haserre dagoela.

—Ez dakit, ez dut uste... presaka ibili gara eta...

—Ez dut ustek ez du balio, beti berdin zabiltza, dena galtzen!

—Ez da nire errua berandu iritsi izana! —erantzun diozu minduta.

Ez duzu Ane batere gogoko, beti haren aurpegi ozpin eta haren hitz lehor, haren Pitagoras, probabilitate eta ekuazio. Biziko ez da ba mingostuta egunero matematikak erakutsi behar izanda?

Irakaslearen begirada zorrotzari eusten diozu, ez baita justua egin dizun akusazioa. Tira, egia izan daiteke despistatu samarra zarela, egia izan daiteke sarri galtzen dituzula gauzak, baina seguru dakizu nortasun agiria ez duzula galdu! Gainera, tren geltokira garaiz iritsi izan bazinete, orain sobera denbora izango zenuke dokumentua bilatzeko eta, gauza jakina da, presarik gabe bilatuz gero, falta dena lehenago agertzen dela. Baina ez, zure gelako lau azalorre harropuzak, beti bezala, berandu iritsi dira autobusera eta, haien erruz, autobusa berandu abiatu eta berandu heldu da tren geltokira, eta nortasun agiri madarikatu hori aurkitzen ez baduzu, atunburu haiek trenea hartuko dute eta zuk ez!

Nasara begiraten duzu: dagoeneko ez dituzu lagunak ikusten. Traidore halakoak. Pena aurpegiz egin dizute agur eskuarekin, erruduntasun apur batez ere bai beharbada, baina, aurrera jarraitu dute denek eta Anekin abandonatu zaituzte. Sekulakoak eta bi botako dizkiezu harrapatzen dituzunean.

—Hemen dago! —dio Anek zure motxila barrutik eskua ateraz eta, berehala, gaineratu du—: Esan ez dizut, ba, motxilan begiratzeko.

Hamaika aldiz begiratu duzu eta! Ez zegoen ez zegoen ez zegoen! Zure mugikorrarengatik zin egingo zenuke dokumentua ez zegoela motxila barruan.

Nortasun agiria segurtasun guardiari eman diozu eta datuak egiaztatzen hasi da. Patxadaz. Patxada handiaz. Patxada handi ikaragarriaz. Nahita ari al da babuodolki hau zu izorratzen?

Zabaltzen du barrera halako batean eta karreretako bi zaldiren moduan hasten zarete korrika Ane eta biok, nasan aurrera eta aurrera, buruak ezker-eskuin besteen bila. Bat-batean, irakaslea geratu egin da.

—Ikusi dituzu? —galdetu diozu.

Ezezko keinua egiten du buruaz, eta esan dizu:

—Ez gara iritsiko.

—Hemen gaude eta!

—Trena abiatzear da.

—Ba, goazen! Zergatik gelditu zara?

—Azken nasako hura da. —Hatzarekin zuengandik urrutien dagoen trena seinalatzen du—. Buelta osoa eman behar dugu lurpeko pasabidetik. Ez digu astirik ematen. Ez duzu trenaren atera aurreko soinua aditzen?



4

Sinesgogor begiraten duzu Anek esandako lekurantz: sei trenbide daude eta zuen trena seigarrengoan dago, urrutiago ezin. Orain zu zara buruarekin ezezko keinua egiten duena, ezin duzu Anek dioena onartu. Ez duzu onartu nahi. Zeren eta egia balitz, zer esan nahi du, ikasbidaiarik gabe geratuko zarela? Paris ezagutu gabe? Ez, ez eta ez. Egon behar du moduren bat, ez zaudete prest dena galdata dagoela hain azkar onartzeko.

—Trenbideen gainetik joanda iritsiko gara —diozu.

—Erotuta zaude? Debekatuta dago, ezin da halakorik egin.

Okurritzea ere...

Zuen trenari begiraten diozu hortzak estututa, abiatu aurreko txistua jotzen ari da, ateak itxita jada. Denbora agortzen ari zaizu, erabaki bat hartu behar duzu: etsi edo saiatu, obeditu edo arriskatu.

ZER EGINGO DUZU?



Trena ez galtzeko ahalegina egin eta geltokiko **trenbideak zeharkatu nahi badituzu**, zoaz 122. orrira.

Amore eman eta **trena galtzeko prest bazaude**, zoaz 130. orrira.